b
BARREN
ELGOIBARKO ASTEKARIA
554. zkia.
XIII. urtea
2005eko abenduaren 23a



# Argi-argi pasau Gabonak!

[ **GEHIGARRIA** ] 2005ARI ERREPASOA • [ **KIROLA** ] NAZIOARTEKO XAKE TXAPELKETA

## GEROKOA AURREIKUSPEN PLANA, BGAE

Geroan pentsatzeak irabaziak emango dizkizu orain.

# Dasta ezazu zerga-arintze hoberenaren ahogozoa

30 PIEZAKO PORTZELANAZKO BAXERA.

ALTZAIRU HERDOILGAITZEZKO TXIGORGAILUA.

Egin zure diru ekarpenak abenduaren 30a baino lehen eta Delicatessen produktuen kaxa hau edo opari oparo hauetakoren bat eraman dezakezu; eta zure Plana gurera ekartzen baduzu, oso hobari interesgarria jasoko duzu.




bankoa CRÉDIT AGRICOLE

# PINTURAK

PEDRO PEREZ BERISTAIN

LEHEN



ORAIN



**Ez da pintura erabiltzen, adreiluari egiten zaion tratamendu baten emaitza da**

LEHEN



ORAIN



Xixilion, 2 - 3. sotoa

Tel.: 943 74 36 52 - 639 76 09 19

ETXE BERRIA, KALEAN ALA MENDIAN?

HOBE JARDIN BAT ZENTRUAN

KALITATEZKO ETXEBIZITZAK
ELGOIBARREN

. DUPLEX-AK BEHE SOLAIRUAN ETA GOIAN
. GARAJEA ETXEBIZITZA ALBOAN
. BALKOIA EKIALDERA ETA JARDINA MENDEBALDERA
. ESKILARA MEKANIKOA ZENTRURA




AZKEN FASEKO ETXEBIZITZAK: 943 74 44 67
SUKIA.COM

sukia

sukibide

GABILONDO
AGENCIA INMOBILIARIA

943 74 44 67
ELGOIBAR



# ZOZOAK BELEARI...



AINHOA MENDIBIL

Olentzero maitea,

Urtero bezala iritsi da gauez ere kaleetan argi mordoa egoteko garaia. Urtero bezala, dagoeneko mila denda hustuko zenituen.

Urtero bezala, gutxi batzuk ikatza ere jasoko dute. Eta urtero bezala, beste mordo batek ez du ezer jasoko. Mutilek, ŒAction Man, eta odola besterik bereiziko ez den bideojokoak jasoko dituzte.

Neskek, arrosaz jantzitako panpinekin umeari pixoihalak nola aldatu ikasiko dute zure opariei esker; eta honetan emango dute eguna gero. Biba zu!! Etorkizunean ere neskak ama izaten jarraituko du, trankil horregatik!

Durangon ere izan dugu gero zuri eskutitzean eskatzeko moduko opariak begiratzeko aukera. Han ordea, umeek ez diete liburuei begiratu, eta gurasoek, umeak nekatuko zirelakoan, kanpora irtetea erabaki dute.

Plateruenean giro hobea itxuraz.

Olentzero, orain artean ez dizut horrelakorik eskatu, eta badakit akaso astirik sobran ez duzula izango, baina mesedez, erantzun egidazu eskutitz hau.

Azken finean, Toys ŒR, us-a atrakatzeak ez dizu eta horrenbeste denbora kenduko!

Beno ba, gorantziak Mari Domingini eta piztu txondorra, Ingalaterrako keak hasi dira eta harenei lekua kentzen.

PD Nik zer nahi dudan 24an esango dizut, presaka ibil zaitezen.

**«Urtero bezala gutxi batzuk ikatza ere jasoko dute»**

AINHOA

**«Jasotzen duzuna jasotzen duzula ez ezazu negarrik egin»**

AMAIA

AMAIA GORROTXATEGI

Ainhoatxo kuttuna:

Faltan sumatzen nituen zure eskutitz goxoak. Akaso lehengo urtean zuhaitz azpian utzi nizun larruzko bodie eta latigoarekin ez nuen asmatu, baina, eskutitzik idatzi ez zenidanez...

Egia esan zure gutuna irakurri ondoren izugarrizko kontzientziako kargua sartu zait, eta erabaki dut aurten soineko larrosadun panpinak mutilei oparituko dizkiedala! Haiek ere ikasi beharko dute pañalak aldatzen, ala?! Neskei zer oparituko diedan oraindik ez dut erabaki. Toys ´R´ US-eko action man eta tekken guztiak Durangon liburu piloa erosten ibili ziren guraso maitagarriak agortu baitituzte. Hau da hau xamurtasuna...

Beno maitea, jasotzen duzuna jasotzen duzula ez ezazu negarrik egin.

Gogoratu nire Perikok ezin duela bizkarrean maitasunaren zama eraman eta beraz, beharbada, urte zahar egunean eramango duzun tangatxo gorri horrekin konformatu beharko zarela.

Halere, espero dut, urtero bezala, zure etxeko sukaldeko mahai gainean Errioxako txikitoa eta gailetak aurkitzea.

PD: Ez inori esan, baina Ingalaterrako biltegiari su eman ziona ni izan nintzen.... shshshsh... Ez horrela begiratu! Zer egin behar nuen? Nire txondortxoarekin ez neukan Madril inguru horretan banatzeko adina ikatz!

> EGIAZKO LIBURU EZ DA IRAKURTZEN DUGUNA, IRAKURTZEN GAITUENA BAIZIK
>
> W. H. Auden

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## Argizaiolak argi

Joan den asteko BARRENen elkarrizketatu genuen Gotzon Garate, besteak beste, Argizaiola saria jaso duelako. Durangoko Gerediaga elkartearen eskutik, euskalgintzan egindako lanaren ordaina izan da sari hori.

Liburuak eta artikuluak ezin konta ahala argitaratu ditu Gotzonek. Hamaika hizkuntza dakizki, eta prestakuntzan, tituluz beteriko ganbara du. Euskarari eta euskalgintzari begira sutsuki lanean aritu da beti. Irakasle jatorra eta ikasle umila da. "Hori guztia eta askoz gehiago", esan nuen aurrekoan.

Abenduaren 8an Durangon, San Martin kulturgunean bildu ginen hainbat lagun, hari babes emateko. Lekuak berezkoa zuen xarma, baina omenaldia zinez izan zen polita. Mikel Laboaren doinuak giroarentzat bereziki paratua zirudien, eta mendien irudiek malkoak ekarri zizkiguten askori.

Nik neuk bereziki eskertu nahi diot, milaka orritan izkiriaturik utziko duen ondare aberatsaz gain, badela urrats ikaragarri bat, egoera arras zailean egin zuena. Euskal Filologia sortu zuen, berak askotan aitortu duen eran euskarari askotan iskin egin izan dion Deustuko Unibertsitatean. Eskerrak eman nahi dizkiot, ikasteko lekuaz harago, euskaldun askoren hazitegia eta bizitzako eskola sortu zuelako.

"Harekin dudan loturak ez nau itsutu, Gotzon Garate euskal herriari eta euskal kulturari emanda bizi dela esaten badut. Gazteriari, gizarteko beharrei, kulturari begira. Hainbatek eskertu behar diogu gure ibilbideko lehen urratsen gidari izatea. Gotzon Garate esango nuke dela, bere bizia on egiten igaro duen euskaltzale handia."

Horrela amaitu nahi nuke, baina Durangon esan zuten bezala, hobe honela: *Eskerrik asko, Gotzon.*

**AINHOA LENDINEZ GARATE**

## Itxaropena Abesbatza

Itxaropena Abesbatzatik gabon zoriontsuak eta urte berri on bat opa diegu herritar guztiei. Bide batez eta gure gogoaren aurka bada ere, Itxaropena Abesbatzaren desagertzearen berri eman behar dizuegu. Ezinezkoa izan da behar den koralista kopurua lortzea eta pena handiz bada ere, gure ibilbidea amaitutzat ematea erabaki dugu. Hala ere, etorriko diren garai desberdinetan abesbatzaren bat sortuko den itxaropenik ez dugu galdu nahi. Eskerrak eman nahi dizkizuegu 13 urte hauetan zehar emandako animo eta dirulaguntzengatik, eta eskatu ere bai, edonon aurkituko dituzuen abesbatzen abestiekin gozatzen jarrai dezazuela.

**ITXAROPENA ABESBATZA**

## Gordoaren kontua

Iaz Euskal Herrian 29.000 milioitik gora pezeta jokatu ziren "El Gordo" loterian. Sari nagusietan 250 milioi pezeta jaso ziren Euskal Herrian. Espainiar Estatuak 128.000 milioi pezeta garbi irabazi zituen "El Gordo" loteriaz.

**IÑAKI ERRASTI**

E-POSTA

**barren@elgoibarkoizarra.com**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia.**

[b]arren

**LAGUNTZAILEA** Elgoibarko Udala **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Mikel Cornejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Iban Urizar, Kokoe K.E., Urruzuno, Unai Villena, Alaitz Vives **ESAERA ZAHARRA** Gotzon Garateren liburutik **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.450 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855

Argitaratzailea:

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.

## KEXAK



• Elgoibar Ikastola aurreko aldapan ez lukete bi aldeetan aparkatzen utzi behar: "Gurasoak euren haurren bila joaten direnean esaterako, Elgoibar Ikastolako aldapako bi aldeetan aparkatzen dute autoa. Alde batean aparkatu daiteke, baina beste aldean ez, debekatuta dago, eta jendeak espaloi gainean uzten du autoa. Sarritan behetik goraino, espaloi guztia autoz beteta egoten da, eta oinezkoak ezin dira espaloitik joan. Herri honetan badirudi autoak pertsonak baino garrantzitsuagoak direla".

• Bernardo Ezenarro kalean egin duten errotondan jendeak autoa aparkatzen du: "Herriko trafikoaren egoera hobetzeko asmoz errotonda egin dute Bernardo Ezenarro kalean, baina jendeak bertan aparkatzen du autoa, eta trafikoa oztopatzen du. Udaltzainek ez lukete hemen aparkatzen utzi behar".

• Herritar batek egun batzutan Kiroldegiko igerilekuko ura 32 gradutan jartzea eskatzen du: "Haur jaioberrientzako ikastaroak egiten direnean 32 gradutan jartzen dute ura, baina ikastaroa amaitzen denean, berriz hozten dute ura, eta ezin izaten gara ikastaroan ikasi duguna praktikatzera joan gure umeekin. Gabonetan, eta asteburuetan, ordu batzuk gutxienez, ura 32 gradutan jartzeko eskatuko nuke. Ezin gara beti ikastaroak ordaintzen ibili. Urteko kuotarekin umeekin ibiltzea ere ordainduta dagoela uste dut".



## GALDERA



• Udalak ez al dauka Madalako zabor kontenedoreak lurrazpiratzeko asmorik? Herritar batek esan digunez, Ermuaranbide kalean oso txukun gelditu dira lurrazpiko zabor kontenedoreak, eta bere ustez, gauza bera egin beharko litzateke Madalan. Hirigintzara jo dugu eta handik esan digutenez, momentuz ez dago hori egiteko asmorik: "orain kokatuta dauden lekuan ezin da honelakorik egin, azpian San Lorentzo erreka dagoelako".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
☎ 943 74 41 12



## URRUZUNOREN luma

### Bilborako 18:02koa

Astero bezala hartu nuen Bilborako 18:02ko trena. Normalean hutsik egon ohi da, baina ordu hartan, hiru agure tokatu zitzaizkidan aurrean, paretarekin berbetan elkarri begira tertulia sutsuan ordubetez iraun zuten hiru buru soil, urteek fisiko eta psiko-kimikoki (hala esan badaiteke) soildutako hiru buru. Treneko txartela zuten hizpide, gortasun psikologikoak (fisikoak baino gehiago, nik uste) eragindako garrasi behartua hitz bide. Entzumenaren organoak eta horri loturiko zentzumenak komunikazio pertsonal, sozial eta kulturalerako bitartekorik garrantzitsuenekoa eskaintzen omen dio gizakiari. Urteak aurrera joan ahala, zentzumenen zehaztasuna galtzen joaten omen gara, zentzumenek zentzua galtzen duteneraino, antza, agure haien autodiskurseoak erakusten zuen moduan. Zentzua eduki edo ez, Atxuri-Bilbaoraino joan nintzen beraiekin. Leihatilara galdetzera hurbildu eta hirurek zuten arrazoia! Kasualitatea? Gorreriaren kausalitatea? Saramagok sekula "Gorreriari buruzko saiakera" idatziko balu, 18:02koa hartu besterik ez luke behar izango...

***Antton Alberdi***



## BAI ESAN?

### AIORA AZAGIRRE

ATXUTXIAMAIKAKO ZUZENDARIA

*Atxutxiamaika Aisialdi Elkarteak antolatuta, Jostailuen Erakusketa Gidatua izan genuen abenduaren 1etik 3ra bitartean, Kultur Etxeko sotoan.*

**• Zein izan da jostailu erakusketaren helburua?** Jostailuak haurraren garapenean duen garrantziaz jabeturik, gurasoei eta haurrei jostailuak ikusteko eta beraiekin jolasteko aukera bat eskaini nahi izan diegu.

**.• Nolako harrera izan du erakusketak?** Oso ona. 230 pertsona inguru hurbildu ziren. Gurasoak oso gustura agertu ziren, eta bertan banatzen zituzten katalogoak oso interesgarriak zirela adierazi zuten.

**• Zer eduki behar da kontutan jostailuak erostean?** Jostailuak haurraren adin eta kapazitateetara egokitu behar du. Irudimena bultzatuko duten jolasak izatea komeni da, eta sexu bereizketarik eta indarkeriaren aldeko jarrerarik erakusten ez duten jolasak aukeratzen saiatu behar gara.

**.• Nola eragiten dute jostailuek umeengan?** Haurraren bizitzan, jolasa funtsezko jarduera da. Hazten, besteengana hurbiltzen eta garatzen laguntzen du jostailuak. Bere burua ezagutzeko jolasten du haurrak, nagusien rolak imitatzen ditu mundua aztertu, ezagutu eta menderatzeko.

## komikia

*Hil da gero... horra horra gure olentzero!*




Kokoe 041


Belaustegi
Baserria
JATETXEA
Zoriontasuna,
bakea eta
maitasuna
ez daitezela
zure etxean falta
Belaustegi baserria jatetxea
San Migel Gaina z/g · Tel. 943 74 31 02
www.belaustegi.com
31 eguerdian zabalik
1 eguerdian zabalik
5 eta 6 zabalik


URZELAI
Elektrizitatea
Argiztapena
Santa Ana, 12-14 • Tel.: 943 74 13 76 / 608 77 40 32

# EL GAUTXO

**Gabonetarako enkarguak hartuko dira:**

- Erregetako roskoia
- Mota guztietako tartak
- Tarta gozo eta gaziak



bokatak

entsaladak

pizzak

gozoak

**Gabon zoriontsuak!**

Errosario, 31 • ELGOIBAR • Tel.: 943 53 17 71



# 2006ko Gida Komertziala

Elgoibar, Altzola eta Mendaro

**Iazko gidan zure etxeko edo negozioko telefonoa agertu ez bazen, 3 aukera dauzkazu:**




- Telefonoz, 943 74 37 04 zenbakira deitu.
- E-postaz, *barren@elgoibarkoizarra.com* helbidera mezu bat bidali.
- Fitxa bete eta BARREN-ek Nafarroa Enparantzan daukan lokalera ekarri.

Izena: ______________________

1. abizena: ______________________

2. abizena: ______________________

Helbidea: ______________________

Telefonoa: ______________________

## [AKORDATZEN NAIZ]



### FELISA BERGARETXE
1915an jaioa

## «Gabonak eta familixia»

Gabonetan beti pozik egoten giñan. Familixan pasatzen genduzen Gabonak. Osaba-izebak ere etortzen ziran gure etxera, eta oso gustora pasatzen gendun. Ez ziran oin bezelakuak. Urte osuan jaten zana baiño gehixago eta hobeto jaten zan, baiña gaur egungua larregikua da.

Orduan ere, erregaluak ez ziran oin bezela egitten.

Gabonetako inportantiena danok juntatzia zan.

Gurasuak eta bost anai-arreba giñan. Gurasuekin oso ondo konpontzen giñan, ez zan hasarrerik egoten gure artian. Nere anai nagusixa, Jesus, oso gazte hil zan meningitis gaixotasunak jota. Orduan ez zaukan gaixotasun honek sendabiderik. Ni hirugarrena naiz. Nik bi seme-alaba izan nittuan. Semia bat-batian hil zan. Momentuan bizirik, eta bat-batian hilda. Eta handik urtebetera nere billoba hil zan istripuz. Oraindik malkuak ateratzen jataz gogoratzen naizen bakoitzian.



## [GURE BERBAK]

### Esapide adierazgarrixak (11)

Urte zaharra bezela, ia poliki-poliki esapide adierazgarri hauek ere atzian lagatzen dittugun eta beste gai batzuk jorratzen hasten geran.

Gaurko hauek izango dira adibide-saill honetako azkenak. Ia gustokuak dittuzuen.

- *Sekula santan ez nok etxe horretara sartuko!*
- *Horrek anaixok gaztetan etxaudezak larre motzian ohittuta, eta toma egitten jauek lanari!*
- *Gerora konturatu nitzuan etzakixela pitorikan ere!*
- *Hori dok txatxaria, hori! Hasi zaittezte lanian behingoz!*
- *- Astelehen goizeko seiretan ertenda dago, hamendikan, eh; hori gogorra da. - Ya lo kreo dala gogorra.*
- *- Oiñ ere neskatan Inazio! – Bai, zalia dok txarri oril;*
- *Horrek jakak zartadia, horrek, buruan!*
- *Horrek jakak pitzatua, horrek, buruan!*
- *Zorioneko Gran Hermano hori! Zer daka ba hainbeste jendek ikusteko?*
- *Hori dok pagotxa, hori.*
- *Ointxe ari giñuazen Mikelen gaiñian gaizki-esaka, eta bertan Bilbo nun azaltzen jakun!*
- *Batek jakik noiz etorriko dan elurra aurten.*

*Jesus Mari Makazaga*



**IV. URTEURRENA**
2001eko abenduaren 28an, 67 urte zituela hil zen
*Carmelo Modamio de Leon*en
oroimenez urteurreneko meza izango da,
larunbatean, hilak 31, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.



## [ PROTAGONISTA ]



### EduArrillaga

Edu Arrillaga argazkilari elgoibartarrak beste sari bat jaso du. Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Giza Eskubideei buruzko lehiaketan hartu du parte oraingoan, eta lehenengo saria jaso du. 2000 euroko saria eman diote. Dominikar Errepublikako umeei egindako argazki bilduma bat aurkeztu zuen Edu Arrillagak lehiaketa honetara. Irudi hauetan kaleko umeek bizi duten egoera latza eta Gobernuz Kanpoko Erakundeek hauei laguntzeko egiten duten lana islatzen da. Lau urtetan bildutako argazkiak izan dira. Zorionak!

## [ NOTIZIA ]

# Abenduaren 31n ospatuko da Gabon Zaharretako Feria

Gabon Zahar Feria urteko azken egunean ospatuko da aurten ere, abenduaren 31n, alegia. Urtero bezala, denetariko produktuak ikusi, dastatu eta erosteko aukera izango dute bertara hurbiltzen direnek. Goizeko 9:00etatik aurrera, barazki, fruitu, gazta eta beste hainbat postu prest izango dira Plaza Handian. Bestalde, Leku Eder parkean eta Giza Eskubideen Enparantzan baserriko produktuak egongo dira, eta Plaza Txikian hileroko ganadu feria eta lanabesak izango dira ikusgai. Honetaz gain, Zabale eta Baltzola anaien eskutik trikiti doinuak entzun ahal izango ditugu kalean zehar, eta Elgoibar Ikastolak burduntzian erretako txahal pintxoak banatuko ditu.



**Lehiaketak**

Goiko Errota Elkarteak antolatuta, goizeko 11:00etan hasiko da XXIV. Gazta Lehiaketa Udaletxeko Areto Nagusian. Barazki eta fruituak, berriz, goizean goiz sarituko dituzte epaimahaikideek. Sari banaketa eguerdiko 13:30ean egingo da.

## [ ZENBAKIA ]

**15**

15 hilabeteren ondoren, badirudi Udala eta merkadilloko saltzaileak akordio batera iritsi direla, eta momentuz behintzat, saltzaile guztiek daukate euren postua Plaza Txikian jartzeko baimena. Sigmako aparkalekua egin arte, beraz, Plaza Txikian izango dugu ostegunetako azoka.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Ehundaka jostailu bildu ditu Elgoibarko Gurutze Gorriak aurtengo jostailu-biltze kanpainan. Helburua, arazo ekonomikoak dituzten familietako umeei Errege Egunean oparitzea da. Zerbitzu Sozialeko arduradunen laguntzaz aukeratzen dituzte behar handiena duten familiak. Aurtengoan ere, herritarrek oso ondo erantzun dute, baina jostailu asko ez daude egoera onean, beraz, ezingo da jasotako guztia banatu. Hala ere, herriko ume askoren Gabonak alaitzea lortuko dutelakoan gaude.

# Herriko zenbait taldek agerraldia egin zuten "Estatus politikoa orain" lemapean




Elgoibarko Etxerat-ek deituta, kontzentrazioa izan zen joan zen zapatuan, eguerdiko 13:00etan, Plaza Handian. Agerraldi honetan, herriko talde desberdinek hartu zuten parte, euskal preso politikoentzako estatus politikoa eskatzeko helburuarekin. Euskal presoek eta euren senideek jasaten duten egoera salatu zuten, eta sakabanaketak eragiten dituen ondorio latzak behin betiko albo batera uztea eskatu zuten. Koello 104 eta Arima Beltza musika taldeak, Ongarri Zine Kluba eta argazki taldea, Haritz Dantza taldea, Elgoibarko AEKko irakasleak, Zazpiki Irratia, Elgoibarko Gazte Asanblada eta Taupada eta Ekekei antzerki taldeek hartu zuten parte agerraldian.

### Elkarteratze isilak

Hilabeteko azken ostiraletan elkarteratze isilak egiten dira Plaza Handian, eta herritar guztiei egin zieten bertan parte hartzeko deia. Datorren abenduaren 30ean bertsolari eta trikitilariek hartuko dute parte hilabete honetako elkarteratzean. Bestalde, urtarrilaren 7an Bilbon izango den manifestazio nazionalera joateko deialdi zabala egin zieten elgoibartar guztiei.

## Einbiouk Sigmako aparkalekuari buruzko gezurrak esateaz salatu du Udala



Einbiou Herri Plataformako kideek azaldu dutenez, Udala Sigmako aparkalekuari buruzko gezurrak esaten ari da. Eibioukoen esanetan, "obra egiteko baimena Jaurlaritzako Ur Zuzendaritzak eman behar du, obra ibai ondoan delako. Obraren espedientean baimen hori bazutela ageri zen, baina ez omen zegoen baimen eskaeraren agiririk". Einbioukoek Jurlaritzan galdetu dute honi buruz, eta ezer ez dakitela erantzun diete. Beraz, Einbioutik argi utzi nahi dute "Udalak obraren gaineko dokumentu publikoa faltsutu duela eta baimenik gabe ari direla obrak egiten".

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Jangela Solidaria

Peio Garcia Amiano sukaldari donostiarrak pintxo errezetei buruzko liburu bat kaleratu du, eta honekin ateratzen dituen irabaziak Jangela Solidaria proiektuari emango dizkio. Honi esker, Etiopiako haurrei jaten emango zaie. Liburua 15 euroren truke erosi daiteke edozein liburudendatan.

### Zabor kontenedoreen leku aldaketa

Pedro Migel Urruzuno kaleko zabor kontenedoreak lurrazpian sartuko dituzte, eta obrak iraun bitartean, egungo zabor kontenedoreak 25 eta 27 zenbakien artean kokatuko dira.

### Bidezko Merkataritza

Bidezko Merkataritzaren denda Merkatu Plazan jarri dute aurten. Abenduaren 3tik irekita dago eta urteko ostiral (17:00etatik 20:00etara) eta zapatu (8:30etik 13:00etara) guztietan egongo da irekita.

### Ikastolako txosnan txahala

Gabon Zahar Feria Egunean, abenduaren 31n, txahala erreko dute Elgoibar Ikastolako txosnan. Goizean zehar erreko dute txahala, eta eguerdiko 12:00etatik aurrera txahal pintxoak banatuko dituzte. Txahala herriko Eusko Label etiketa duten harategien emaria da: Armueta, Ziarda, Barrutia eta Benito.



Urte zaharrak agur esango digu egun gutxi barru.

# Zelakoa izan da urte zaharra? Eta, zer eskatzen diozu berriari?

**IRATXE GARATE**
Ikaslea
19 urte



“Orokorrean urte ona izan da. Denetarik eduki dut, ona eta txarra, baina gauza politak ikusi ditut. Datorren urteari gida baimena eta lana eskatzen dizkiot.”

**FERMIN GUERRA**
Jubilatua
62 urte



“Ona izan da urte hau niretzat, ondo joan da. Datorren urtean begietako ebakuntza bat egingo didate, eta gauzak ondo ateratzea eskatzen dut.”

**ARRATE DE LA HORRA**
Etxekoandrea
46 urte



“Erdipurdikoa izan da, gauza onak eta txarrak gertatu zaizkit. Datorren urteari osasuna eskatzen diot, eta aurtengoa baino hobeagoa izan dadila.”

**MARI CARABALLO**
Etxekoandrea
49 urte



“Ezin naiz kexatu, urte ona izan da. Etxeko guztiek lana daukate, semeak etxea erosi du eta osasunez ondo gabiltza. Datorren urtea aurtengoa bezalakoa izan dadila!”

# [ BAI ala EZ? ]

## Euskaldunok ba al daukagu Euskararen Eguna ospatzeko motiborik?

**BAI %87**

“Bai horixe! 30.000 hizkuntza inguru desagertu dira historian zehar, eta gureak bizirik dirau. Baina, kontuz, normalizazioa oraindik urruti dago eta!”

**EZ %13**

“Tamalez jende askok ez du erabiltzen, eta etorri diren etorkinekin gero eta gutxiago entzuten da. Euskararen Eguna ospatu baino gehiago, euskararen alde borrokatu behar dugu.”

Datorren asterako.... Aurten ere, iritsi dira Gabonak.
**Ba al daukazu Gabonak ospatzeko ohiturarik?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) **ERANTZUNA**

**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.




Hilabete honetan **RIP musika taldearen 5 CD-DVD** zozketatuko ditugu. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

Gabi jatetxea

- Eguneko menua
- Enpresentzako menua
- Bataioak...



**GABONETAKO MENUA**

Aperitiboak
Eskalibada kantabriako antxoekin
Foie plantxan Martini karameluarekin

Itsas sapoa amerikar erara
edo
Onddoen bakailaua pil-pil erara

Iberiar txerria babarrun txurien purearekin
edo
Solomoa idiazabal erara

Tanzaniako txokolatezko mousse-a "Maracuya" sorbetearekin
edo
Gabonetako konpota epela onddoen biskuitarekin

Prezioa: **28 €** (+b.e.z.)

Nafarroa enparantza • Tel.: 943 74 12 30

*Ondo pasa Gabon jaiak!*

---

TEMPUR · laxy · Mediterráneo · sonpura · MASH

Zure logela aukeratzerakoan altzaria ez da garrantzitsuena. Koltxoi egoki bat aukeratu.

**Gure erakusketa bisita ezazu!**

TEMPUR
PRESIOA ARINTZEN DUTEN KOLTXOI ETA BURKOAK

TEMPUR koltxoi eta burkoak gorputzaren formara egokitzen dira beharrezko lekuetan ezinbesteko sostengua eskainiz.



**%20ko beherapena fibrazko burukoetan!**

24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

**LAGUNAK**

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

www.textillagunak.com

# MERKATU PLAZA

## *Uste duzuna baino gehiago!*



**Amaia** FRUTADENDA



**Arantxa** eta **Marian** FRUTADENDA



**TXILARRE** BARAZKIAK



**IBARRE** OKINDEGIA



**FRAILE** HARATEGIA



**MARI** HARATEGIA



**Amparo** HARATEGIA



**M. Angeles** FRUTADENDA



**TXIRIBOGA** TABERNA



**Zabala** FRUTADENDA



**Zabala** URDAITEGIA eta ARDANDEGIA

*Gabon zoriontsuak denoi!*

# [ 05 ]

urteari errepasoa




**Urtarrilak 11**

“Elgoibar Bizirik”, merkadiloaren aldeko herri plataforma aurkeztu zuten Herriko Antzokian. Sindikatu, alderdi politiko eta beste hainbat kolektibotako ordezkariek osatu zuten plataforma.



**Urtarrilak 15**

Altzolatarren Dorretxea Filatelia Elkarteak 25 urte bete zituen. Espainiar Estatuan aurki daitezkeen seilu bildumarik onenak batu zituzten urteroko erakusketan.



**Urtarrilak 13**

IMHren "Simultec" proiektuak Espainiako Kultura Ministerioak eta BBVA Fundazioak antolatzen duten Francisco Giner de los Rios Saria jaso zuen Madrilen.



**Urtarrilak 20**

“Izarren hautsa 40 urtean” liburua aurkeztu zuen Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak, sortu zeneko 40. urteurrenarekin bat eginez.

Lanbroa




Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5 • Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

karkizano
San Frantzisko, 14 – Tel. 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
Kanpo eta barneko estaldura
Zoluen kolokazioa
Lakadura: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 740 570
GRUPO

## [ PROTAGONISTAK ]



### Miren Guillo

Expediente Akademiko Onenaren Saria jaso zuen Gizarte Hezkuntza ikasketak amaitu berri zituen ikasle gazteak, beste 39 ikasle gipuzkoarrekin batera. Orain, Gizarte Pedagogia ikasten hasi zela aipatu zigun.

### Satur astoa

Akei baserriko Satur astoak, Lazkaoko Astotxo Eguneko Asto Lehiaketa irabazi zuen bigarren urtez jarraian. Domingo Arriola, jabeak, azaldu zigunez, ehun asto inguruaren artean aukeratu zuten Satur epaimahaikideek.





### Tariku Bekele

Kenenisa anaiaren parera iritsi daitekeela erakutsi nahi izan zuen Tariku Bekele etiopiarrak Mugerza Krosa irabaziz. Munduko Kros Txapelduna den anaia ezagunagoak ere jantzi zuen txapela Elgoibarren urte batzuk lehenago.

### Kepa Urain

Santa Eskeko Etxegiña Taldean 25 urtez koplari aritu izanagatik omenaldia jaso zuen Kepa Urainek. 25 urte hauetan izandako bizipen guztiak kontatu zizkigun.



ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

Mahape taberna
Orain astegunetan
Zorionak eta Urte Berri On!
San Frantzisko, 60

JOSE pinturak
(Txema)
Mota guztietako pintura eta enpapelatuak.
Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.
San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14



**Otsailak 3**
15.122.444 euroko aurrekontua onartu zuen Udalak 2005. urterako. Aspaldiko partez, Alderdi Politiko guztiek eman zuten aldeko botoa, eta aho batez onartu zituzten amaitzear dagoen urterako aurrekontuak.




**Otsailak 4**
Fatronik enpresak Next proiektua jarri zuen martxan. Ingurumenarekin bat egiten duten makinak garatzea da honen helburua; makina ekologikoak, kutsatzen ez dutenak.




**Otsailak 5**
Otsailaren 5ean bildu ziren Elgoibarko Plaza Handian Europako Konstituzioaren kontrako elgoibartarrak.



**Otsailak 10**
IMHk datozen 10 urteetarako hizkuntza politika aurkeztu zuen. Helburua ondorengoa: euskara oinarrizko hizkuntza izan dadila lanean, produktuetan eta barne eta kanpoko harremanetan.

Lojanet

Pintxoetan aukera zabala
P. Muguruza, 7 Tel: 943 74 16 76

Bukatu S. Coop.
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR
MEKANIZATUEN TAILERRA

URKIDI AHOLKULARITZA
KONTABILITATE
LAN
FISKAL
Kalamua, 12 · ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91
ASEGURUAK

## [ PROTAGONISTAK ]



### Edu Arrillaga

Argazkilari elgoibartarrak bigarren saria jaso zuen Nazio Mailako "Certamen de cultura popular" argazki lehiaketan. Ohitura zaharrak edo dagoeneko desagertuta daudenak biltzea da lehiaketa honen helburua. Edu Arrillagak bataioen ondoren egiten den "boloa" jaso zuen bere argazkietan, eta 3000 euroko saria irabazi zuen.

### Edu Gomez

Mendaroar modeloak Mister Euskadi lehiaketan hartu zuen parte. Ez zuen irabazterik lortu, baina esperientzia oso aberasgarria izan zela kontatu zigun.





### Jose Luis Belloso

46 urtez gure herrian apaiz lanetan jardun ostean, jubilatu egin zen 73 urterekin. Otsailaren 27an eman zuen bere azken meza.

### Mikel Zengotita

Azpeitiko Argazki Elkarteak antolatutako XIV. Santo Tomasetako Argazki Lehiaketako lehenengo bi sariak irabazi zituen helduen mailan.






MEKANOSA

Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
★ MULTIKOPISTAK
★ FOTOKOPIADORAK
★ PLANOEN BIRREGILEAK
★ ERLOJU INDUSTRIALAK
★ MARRAZKETA MATERIALA
★ INFORMATIKA
★ FAX



PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

NORFO

Ondo pasa Gabonak!

• ELKARTEEN ALDAKUNTZA ELKARTZE ETA ERAKETA.
• LAN, KONTABILITATE eta FISKAL AHOLKULARITZA.
• ALOKATZE KONTRATUAK
• JUBILAZIOA (Pentsioak)

P. M. Urruzuno, 6. Tel: 943 74 31 40 Faxa: 943 74 41 23

Gorbea TABERNA

Jai zoriontsuak!

Santa Ana, 10 • Tel: 943 74 05 80

# [05] martxoa



**Martxoak 4**
Udalak, sei hilabeteko epea eman zion Ajubita Anaien enpresari Ermuaranbide kaleko lantegia ixteko, bizilagunen urte luzeetako salaketak aintzat hartuz.



**Martxoak 11**
Elgoibarko etxebizitzen prezioak %78an garestitu direla azken 5 urteotan jakin genuen. Etxe berri baten metro karratuak 1.800 euro balio zituen 2000. urtean eta 3.200 euro bost urte beranduago.



**Martxoak 12**
3.356 herritarrek merkadilloa herri barruan mantentzearen aldeko botoa eman zuten Elgoibar Bizirik Herri Plataformak antolatutako erreferendumean. Guztira 3.378 elgoibartarrek bozkatu zuten.



**Martxoak 18**
Gemma Agirregomezkortak gidatzen duen Miski Elkarteak 6.010 euroko diru laguntza jaso zuen Euskadi Gaztea irratsaioko "Hi bizi haiz hi" saioak eginiko enkanteari esker.


HERRI ESKOLA

*Eguberri*
*eta Urte berri On!*

## [ PROTAGONISTAK ]



**Carlos Mugerza**
Urdail murrizketa operazioaren ostean 180 kilo pisatzetik 80 kilo pisatzera pasa zela azaldu zigun. Gehiegizko loditasuna eta honen ondorioak izan genituen hizpide.

**Susana Mujika**
Euskadi Irratiko esatariak Irratsaio Onenaren Iparragirre Saria jaso zuen "Faktoria" programagatik. Magazin erako irratsaioaren aurkezle eta gidaria da elgoibartarra.





**Iñigo Arcauz**
Elgoibarko PP alderdiko 26 urteko zinegotzia, Gipuzkoako PPko Gaztediaren presidente aukeratu zuten alderdikideek, aho batez, PPko Belaunaldi Berrien XII. Kongresuan.

**Ane Zabala**
Abokatu lanetan aritzen den elgoibartarra aukeratu zuten Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteko lehendakari. Beñat Bilbaok lagatako lekua hartu zuen Anek.



Clínica Oftalmológica RECALDE Oftalmologi Klinika
www.clinicarecalde.com
MIOPIA LASER - KATARATA EBAKUNTZAK
Plaza Barria, 2 - 2º - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tfnoa.: 943 20 18 44

PREZISIO MUNDU BAT
MYL
MYL S.A.
Zorionak eta Urte Berri On!
Erramone poligonoa, 1-2-3 - 20850 **MENDARO**
Tel. 943 75 70 03 · Faxa: 943 757 130
E-posta:myl@myl.es · http:www.myl.es

# [05] apirila



**Apirilak 5**
Elgoibar Bizirik Plataformakoek eskatuta, Sigmako aparkalekuaren ikerketa egin zuen Jaurlaritzak, eta ostegunetako merkadilloa jartzeko ezinduentzako oztopoak zituela azaltzen zen bertan.



**Apirilak 10**
Ostegunetako azoka Sigman jartzeko prest dauden saltzaileen kontrako mehatxuak salatu zituen Udalak. Marivi Agirregomezkorta alkateak, bere Gobernu Batzordearen babesarekin prentsaurrekoa eskaini zuen beraiek eta saltzaile batzuk jasaten ari ziren egoera salatzeko.



**Apirilak 8**
Elgoibarko BH Institutuak 50 urte bete zituen, eta urteurren horretako ospakizunik garrantzitsuena apirilaren 8an egin zuten. Institutuaren sorrera, orainaldia eta etorkizuna biltzen zituen bideoa ikusi ondoren, hasierako sortzaileei omenaldia egin zieten.



**Apirilak 17**
EAEko Hauteskundeetan EAJ-EA koalizioa nagusitu zen Elgoibarren, baina 2001eko hauteskundeetan baino 1.154 boto gutxiago eskuratu zituen. Herritarren %72,54ak hartu zuen parte.




## [ PROTAGONISTAK ]



**Alberto Ortueta**
AFMko zuzendari orokorra, IMHko museoko eta Gestio Eskolako lehendakariak, Korta Sarien V. Edizioan sari bat jaso zuen. Sari hauen helburua enpresari euskaldunen ibilbideak saritzea da.

**Eli Ibarra** eta
**Itziar Gurrutxaga**
Futbol jokalari elgoibartarrak hirugarren urtez jarraian Espainiako Superliga Txapelketa irabazi zuten Athletic de Bilbao taldearekin. Ligako azken partidan gainera, Eli Ibarrak gol bat sartu zuen Bartzelona taldearen aurka.





**Aitor Etxeberria**
Margolari mendaroarrak Madrilgo areto batean jarri zituen bere lanak ikusgai. Bere lanetan abstrakzioa eta irudimena nahastea gustatzen zaio mendaroarrari.

**Mikel Olaizola**
Elgoibarko bertsolari gazte honek Sabino Arana bertso paper lehiaketa irabazi zuen. Aurten gainera Euskal Herriko gazte mailako txapelketa finalera iritsi da, eta bigarren gelditu zen.



ETXEPE
MEKANIZATUAK
MEKANIZATU HAUNDIAK
LAN BEREZIAK
Ibaitarte Industrialdea, A2
Tel.943 74 12 97 - 74 06 64
Faxa 943 74 43 21
e-posta: etxepe@etxepe.com
Web orria: www.etxepe.com

NAVAS S.L.
Inprimategia
ZORIONAK eta URTE BERRI ON!

LENTZERIA ETA ETXEKO EHUNKIAK
SARAGUI
San Frantzisko, 44 · Tel.: 943 74 29 42

Gabiola
GESTORIA
• Ibilgailuak
• Garraioak
• Gai orokorrak
AXA ASEGURUAK
San Frantzisko, 22 - Tel-Faxa: 943 74 07 97 - ELGOIBAR

# [05] maiatza



**Maiatzak 6**
Elgoibartarren %40,9k erabiltzen duela euskara kalean jakin genuen, Udaleko Euskara Sailak 7.000 herritarren artean egindako kale neurketari esker.



**Maiatzak 14**
VII. Musikaldia egin zen Elgoibarren. 46 Musika Eskolatako 3.000 ikasletik gora batu ziren eta 150 talde herriko leku ezberdinetan jarritako 10 agertokitan aritu ziren.



**Maiatzak 12**
Tentsioa sortu zen Plaza Handian merkatari, udaltzain eta ertzainen artean. Lehenek, azoka Plaza Handian jartzea nahi zuten, baina besteek galerazi egin zieten, plaza itxi baitzuten.



**Maiatzak 14**
Lehergailu batek eztanda egin zuen Bernardo Ecenarro enpresan. Enpresako hormetan eta lehioetan eragin zituen kalteak. Herrizaingo Sailak ETAk eginiko atentatua izan zela adierazi zuen.


albe

LAUKETAK - MORTASAKETAK
BROTXAKETAK
NONIUS GRABATUAK

GABON ZORIONTSUAK ELGOIBAR!

Sigma Industrialdea · Xixilion, 2 beheko solairua 9
Tel. 943 743 286 ELGOIBAR (GIPUZKOA)
talbe@euskalnet.net / www.albesl.com

Salento

**Salento Pizzeria eta taberna**
**SanFrantzisko kalea, 48**
**Tel.: 943 74 01 96**

ecenarro
Barruko erropak • Umeentzako erropak
San Frantzisko, 10  Tel: 943 74 26 19

## [ PROTAGONISTAK ]



**Agustina Iriondo**
100 urte bete zituen 1905ean Mendaroko Mantarre baserrian jaio zen emakumeak. 20 urte zituela Elgoibarrera etorri zen bizitzera.

**Igor Elizburu**
Euskadiko Hand-bike Txapelketa irabazi zuen gazte elgoibartarrak, IX. Paraolinpikoentzako Bizkaiko Biran.





**Axun Larrañaga**
"Urrats Bat" programaren arduraduna. Lanbide Heziketako zentroetatik enpresa berriak sortzea eta ikasleei lan mundurako sarbidea erraztea da egitasmo honen asmo nagusia. Duela 5 urte martxan jarri zenetik 25 enpresa sortu dira.

**Arnaldo Otegi**
Batasunako bozeralameak Auzitegi Nazionalean deklaratu ostean espetxera bidali zuen Grande-Marlaska epaileak, "ETAko kidea ez izan arren, egitura terroristan gidari postua duen pertsona bat" dela ardudiatuz. Bi gau espetxean egin ostean, 400.000 euroko fiantzapean aske laga zuten.



ARBELOA INMOBILIARIA
INMUEBLE AGENTZIA
Jai zoriontsuak!
San Frantzisko, 34
arbeloa@telefonica.net
Tel.: 943 74 84 27

OLATZ, s.l.
SUKALDE eta KOMUNERAKO ALTZARIAK
Pedro M. Urruzuno, 8 · Tel: 943 74 38 44

OLASO
TABERNA-JATETXEA
Gosariak - Menuak...
Gabon jai zoriontsuak!
Olaso Industrialdea, 15 · Tel. 943 74 31 85 - 636 01 57 07

AZPELETA
elektrizitatea
Jai Zoriontsuak!
San Frantzisko, 51 behea. Tel: 943 74 12 38

# [05] ekaina



**Ekainak 3**
Eibar eta Soraluze inguruko bost gaztek Lerun Txiki baserria okupatu zutela jakin genuen.



**Ekainak 9**
Azokako merkatariek 7.980 euroko kalte-ordaina eskatu zioten Udalari. 9 hilabete lanik egin gabe egon ostean, 210 euro eskatu zuten lan egiten utzi ez zieten egun bakoitzeko.



**Ekainak 6**
Udako beroen ondorioz sutea piztu zen San Pedrora bidean, eta Eibarko suhiltzaileek arratsaldeko 19:00ak arte jardun zuten sua itzaltzen. Hektarea eta erdi erre zen guztira.




**Ekainak 24**
Altzolako Bainuetxea eta Artetxeko etxeak xarma bereziko eraikuntza bezala izendatu zituen Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Arkitektuen Euskalnafar Eskolak.

NOVAK S.L.
MEKANIZATUAK
OLASO INDUSTRIALDEA 27
TEL. 943 74 85 73 · FAXA: 943 74 39 01
novak@menovak.com
20870 ELGOIBAR
Zorionak eta Eguberri On!

ITURRI
Taberna
Zorionak eta Urte berri on!
Foruen plaza, 5
TEL: 943 74 28 97

# ZELETA BARAZKIAK

NEKAZARITZA TRADIZIONALA eta BABESTUA

- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

*Gabon zoriontsuak!*

**Ekoizpen prozesuan energia berriztagarriak erabiltzen ditugu**

ZELETA BASERRIA
San Migel auzoa ELGOIBAR
Tef.: 609 35 76 19

# Aubixa
## Kultur Erakundeak
## eta
## Bertsozale Elkarteak





*Faimiliako giro goxoan*
*elkarren maitasunez blai,*
*gabonak opa dizkizuegu*
*denok ospatzeko alai,*
*euskal girotze barnetegiak*
*eta Aubixak berak ere bai*


Iriondo
taberna
Mila esker elgoibartar guztioi eta eguberri on!

MAPFRE BIZITZA
ZURE ERRETIRORANTZ ZUBIA
PPA MAPFRE Pensiones
Zure erretiroa neurrira eta bermatua
Zorionak eta
urte berri on!
Zure bizitza
San Frantzisko, 40 Tel.: 943 74 05 82 - 943 74 14 04 Faxa: 943 74 17 07
RMARIAL@mapfre.com

# ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** *teoria ikasteko gela berria* !



**ORDUTEGIA**
**10:00**etatik-**12:30**era
**15:00**etatik-**20:30**era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

Euskararentzat bidea ez da
erraza eta leuna;
hala eta guztiz argituko da
noizbait bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu Herriak duen
benetako ondasuna;
Urte Berriak dakarkiola
geureari osasuna





**DEBABE UDAL EUSKALTEGIA**

Nafarroa Enparantza, 2 – 943742731
20870 ELGOIBAR • elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net


Lanbroa
Pintxoak • Bokadiloak • Gosariak • Postreak
PLATER KONBINATUetan aukera zabala
Pedro Muguruza, 5
Tel. 943 74 08 06/943 74 38 11


BOLINTXO
OKINTEGIA
San Frantzisko, 17
Tel.: 943 74 33 78


Muruamendiaraz gozotegiak
Muruamendiaraz
ELGOIBAR
San Bartolome, 34-35 - Tel. 943 74 03 45
Gabon jai gozo-gozoak
opa dizkizue herritar guztioi
Urte Berri On!

# “Behin batean… Gabonak”

## idazlehiaketa 2005



Bor-bor dabilen irudimenaren fruituak dira ondorengo orrietan aurkituko dituzuen aleak. Menditik dinosauro baten altzoan jaisten den Olentzero, azken honi opari gisa bere familiarentzat argitasuna eskatuz eskutitza idazten duen ilunpeko mamua edo Olentzero lodikoteak aukeratu eta puztu duen globo gorri baten bizipenak. “Behin batean… Gabonak” lehiaketako lan sarituetan aurki daitezkeen perletako batzuk dira. Ikatza urre bilakatuko luke gaztetxo hauen irudimenak, kasurik txarrenean, eta horixe hartu dute aintzat epaimahaikideek lanen irudimena, alegia. Txikienak euskaraz idaztera animatzea du helburu iaz estreinatu genuen lehiaketak, eta jasotako lan kopuruari kasu eginez gero, makina bat lan jaso baitugu, harrobia osasuntsu dagoela dirudi. Gure gomendioa: har ezazue tarte bat eta gozatu irakurketaz.

Atxutxiamaika

### Jasotako lan kopurua

- Gabonetako marrazkia: **98 lan**
- Olentzerori gutuna: **99 lan**
- “Handitzen, handitzen… hasi naiz handitzen” ipuina: **88 lan**

**Antolatzaileak:**

Atxutxiamaika Aisialdi Taldea

Elgoibarko Izarra

**Laguntzaileak:**

Elgoibarko Udala

Eusko Jaurlaritza

Gipuzkoako Foru Aldundia

## LH 1 eta 2

# GABONETAKO MARRAZKIA





**Ana Zubiaurre,**
**"Gabonetako marrazkia"**
**lehiaketako irabazlea**
**6 urte.**

- Asto edo zaldi gainean etorri beharrean, dinosauro baten gainean marraztu duzu Olentzero!

Hain justu dinosauroen garaia ari ginen ikastolan ematen, eta horregatik marraztu nuen Olentzero dinosauro baten gainean.

- Gustatuko al litzaizuke Elgoibarren Olentzero dinosauro baten gainean agertuko balitz?

Ez, ez nuke nahi nire marrazkia egia bihurtzea.

- Dinosauro emea marraztu duzu.

Bai, nahi nabaiako, apain-apain marraztu dut.

- Zuhaitzetan gabon-bolak edo fruta exotikoak marraztu dituzu?

Dinosauroak jateko frutuak dira.

- Marraztea gogoko al duzu?

Bai, zer egin ez dakidanean egiten ditut marrazkiak. Gehien loreak marraztea gustatzen zait. Kolore bat aukeratzekotan, arrosa aukeratzen dut.

## SARIDUNAK:

1. saria: Ana Zubiaurre
2. saria: Leire Zapata

# LH 3 eta 4
# OLENTZERORI GUTUNA

Kaixo Olentzero!!!

Ni ilunpeko mamua naiz. Gaztelu zahar eta zikin batean bizi naiz. Dena amaraunez beteta dago. Eta horregatik ezin dut ezer jan sukaldea amaraunez beteta dagoelako.

Ezin dut ikusi ez dagoelako argirik, eta orain miopea geratu naiz iluntasunean egiten ditudalako etxeko lanak. Horregatik dira hauek eskatu nahi dizkizudan opariak.

Famili guztiarentzat argia nahi dut.

Nire nebarentzat eta niretzat betaurreko batzuk.

Nire amarentzat erratz bat amaraunak kentzeko.

Eta nire aitarentzat Karlos Argiñanoren liburu berria orain gauza goxoak prestatuko dizkigulako, nire amak amaraunak kenduko dituelako.

HAU DA GUZTIA AURTENGOZ DESIATZEN NAGO ZU ETORTZEKO

Ilunpeko mamua.



Ainhoa Alberdi, "Olentzerori gutuna" lehiaketako irabazlea.
9 urte.

**- Ilunpeko mamua izena jarri diozu zure buruari. Gogoko al dituzu beldurrezko istorioak?**

Bai, gogoko dut beldurrezko eta misteriozko liburuak irakurtzea.

**- Hala eta guztiz argitasuna eskatzen diozu zure familiarentzat?**

Halaxe da. Gisa horretako istorioak gustuko izan arren iluntasunak beldurra ematen dit.

**- Aitarentzat Argiñanoren liburu bat eskatzen duzu. Horren gaizki sukaldatzen al du aitak?**

Alderantziz, bera da etxeko sukaldaria. Asko gustatzen zaio sukaldean ibiltzea eta horregatik eskatzen nuen Argiñanoren errezeta liburu bat berarentzako.

**- Olentzerori eta erregeei eskatu al diezu opariak?**

Erlojo digital bat besterik ez. Ah! eta "Game boy" bideo jokorako joko bat. Dena den, nik eskaturikoez aparte sorpresak egotea eta jasotzea gustatzen zait.

**- Idaztea gogoko al duzu?**

Bai, eta ez bakarrik eskolatik eskatzen digutelako, bestela ere bai. Batez ere asperturik nagoenean idazten ditut ipuinak edo irakurritako liburuen laburpenak egiten ditut. "Kika supersorgina" protagonista den liburu bildumaren zalea naiz.

## SARIDUNAK:

1. saria: Ainhoa Alberdi
2. saria: Iñaki Gabilondo

# LH 5 eta 6

## "Handitzen, handitzen... hasi naiz handitzen"

## Ipuina

Kaixo lagun txoak!

Globo gorri bat naiz eta hementxe nago kutxa batean sartuta. Bueno, baina ez naiz kexatuko, nire lagunekin nago eta. Nire ondoan kolore askotako globoak daude.

– Ui, ui, ui. Zer gertatzen da?

Ah, betikoa! Hatzapar hauek kutxan sartzen direnean elkar jotzen dugu eta min pixka bat hartzen dut.

– Ai ama, ni hartu naute hatzapar hauek!

– Zein da ume hau? Ez dakit, baina oso azkar doa.

– Zein da gizon hau? Ematen du jan egingo nauela; zelako zoritxarra! Oh, ez! Ez nau jan, puztu egin nau.

HANDITZEN ari naiz eta kolorea aldatzen ari zait. Ze polita eta handia naizen! HANDITZEN jarraitzen dut, HANDITZEN eta borobiltzen, eta gorantz noa. Zenbat gauza ikusten diren hemen goitik.

–Nora narama ume honek?

–Zein da gizon potolo hau? Seguru umearen laguna dela. Ume denak han daude, bere inguruan, berarekin egoteko zain.

Bueno, heldu da gure txanda.

"Xabi!!!" deitu dio potolo honek ume honi. Eskuan daukan eskutitza eman dio. Urteko momentua heldu denean ni ez nago umearekin, potolo honekin nago. Olentzero dela esan didate.

Orain hementxe nago Olentzerorekin umeak pan-etorrian ikusten, eta berarekin egongo naiz beste urte askotarako.

Agur bero bat.

Sara Beristain

Sara Beristain, "Handitzen, handitzen... hasi naiz handitzen" ipuin-lehiaketako irabazlea. 10 urte.



- Nora egingo zenuke bidaia globo handi batean sartuta?

Hawai irlara joango nintzateke. Eguzkitara, epeletara, hondartzan jolastera. Hemengo hotzetik ihes egingo nuke.

- Gustuko al duzu idaztea?

Bai,baina idazlan luzeak egiten aspertu egiten naiz. Gauza motzak idaztea gustatzen zait.

- Eta irakurtzea?

Bai, oraintxe amaitu berri dut liburu bat gazteleraz. Euskaraz eta gazteleraz irakurtzen dut. Ingelesez ere klasean irakurtzen dugu, baina asko kostatzen zait.

- Zer eskatu diozu Olentzerori?

Batez ere, sorpresak ekartzeko eskatu diot, baina honetaz aparte, txutxelandia (txutxeak egiteko aparailua), kirola egiteko zapatilak, eskubaloiko baloia… gauza asko!

- Ondo portatu al zara? Eskatutako guztia ekarriko al dizu?

Baietz espero dut. Ni formala izan naiz.

- Gustuko al dituzu Gabonak?

Bai, amamaren etxean elkartzen gara denok eta oso ondo pasatzen dugu.

- Olentzerok ala Erregeek ekartzen dizkizute opari gehiago?

Biek ekartzen dizkidate. Erregeek batzutan opari txikiagoa egiten didate, baina gauza asko ekartzen dute.

## SARIDUNAK:

1. saria: Sara Beristain
2. saria: Andrea Arce

GABON-JAI ZORIONTSUAK
ETA 2006 URTE BERRI ON



Udarak ostro berdea,
udazkenak, orbela;
negu beltzak elur zuri:
beti izan da horrela.
Pentsa ezazu hainbat tresna
zure esku dagoela:
harria eta zizela,
kolore eta pintzela,
arte-lana gauzatzeko
zeuk nahi duzun bezela
(Doinua: Txoritxoen destinoa)

Elgoibar B.H. Institutua
Euskadi

LEIGAR ELEKTRAGAILUAK
MANU LEIZABE LOYOLA





TB · BIDEOA · HI-FI · DVD
*Salmenta eta zerbitzu teknikoa*
*Errosario, 8 · Tel. 943 74 00 54*

API
Burtsa informatikoa



GABILONDO
317 api
INMOBILIARIA AGENTZIA
Zuzenbidean lizentziatua

API { Edurne Gabilondo Loyola
Jose Mª Azpeleta Iturricastillo

*Jai zoriontsuak denoi*

Errosario 21, behea • ELGOIBAR • Tel: 943 74 44 67

# MILAR BIRE

Ubitarte, 11 - 943 74 14 87




PLASMA TELEBISTA
PANASONIC-TH42PA50 - 42"

**1850 €**



DVD GRABATZAILEA
PANASONIC- DMR/EH50
80 GB-ko disko gogorra

**379 €**




TECNIMAGEN TFT 20" TELEBISTA

**490 €**



COMBI AEG-S 3166 KG8 HOZKAILUA
Elektronikoa, bakterioen aurkakoa, beirazko bandejak. A klasea.

**499 €**




Zure erosketak finantziatzen ditugu

**Telebista digitalarentzat hargailuak ditugu 69 €-tik hasita!**

Ordaindu ezazu 11 hilabetetan interesik gabe!

BASURCO
Inmobiliaria API-368

ZURICH
ASEGURUAK






Deba kalea, 2 behea
Tel.: 943 748 013 · Faxa: 943 748 135

Gabon jai zoriontsuak eta urte berri on




ELGOIBARKO UDAL KIROL PATRONATUKO
Bazkide egin zaitez!!
ELGOIBARKO UDAL KIROL PATRONATUA
KIROL TXARTELA
2006
Tef.: 943 74 44 15

ETXEKIT
SUKALDE ETA BAINUAK
Luis F. Beristain
• PROIEKTU eta BERRIKUNTZAK
• GREMIOEN KOORDINAKETA
• ARMAIRU ENPOTRATUAK
• ATE eta SOLAIRUAK
• ELEKTROGAILUAK
xey
banatzaile ofizila
Gabon zoriontsuak!
5 urteko bermea
Arrillaga z/g - Elgoibar
Tel. 943 74 43 47

## [ PROTAGONISTAK ]



### Moises Andonegi

Kirolari elgoibartarrak Iron Man proban hartu zuen parte Kanariar uharteetako Lanzarote irlan. Igeriketa, txirrindularitza eta maratoia uztartzen dituen proban 452. postuan sailkatu zen. 611 lagunek lortu zuten proba amaitzea.

### Aitor Osoro

Motorzale elgoibartarrak Munduko Enduro Txapelketaren 4. proban hartu zuen parte Gernikan. 120 endurozale onenen artean egotea sari bat zela kontatu zigun.





### Jasone Osoro

